

Agintari txikiak

Herriko lau haurrek pregoia irakurri eta suziria jaurtiko dute gaur arratsaldean

Mendekoste festak guztiz kontrako bi aurpegi ditu; alde bate-tik, jaiak berez eztanda egin aurreko baretasuna eta urduritasuna, eta, bestetik, suziria jaurti ostean horrek eragiten dun alaitasuna eta eromena. Eromen hori arratsaldeko zazpietatik aurrera sentituko dugu, behin herriko alkate txikiak pregoia irakurri eta txupinazoa bota ostean. Festak guztia aldatzeko aukera eskaintzen du, baita udalburuak aldatzekoa ere.

Azken hiru urteetako ohiturari jarraiki, hiru egunez besterik ez bada ere, Lezoko alkateak bere zereginak lau udalburu txikien eskuetan utzi eta lekukoa emango die. Azkeneko horiek izango dira, beren hitzen eta aginduen bidez, herriko txoko eta bazter guztietan festaren kolorea, usaina eta alaitasuna bizitzera behartuko gaituztenak. Beraz, adi haiek esandakoari, jaiak gozatzeaz gainera euskaraz mintzatzeko gonbita egingo baitigute. Agindu gozoak, benetan!

Zozketan aukeratuak

Pasaia Lezo lizeoko bi eta Lezo herri eskolako beste bi ikasle dira ikurrina igo eta jaien hasierako suziria jaurtitzeko ohorezko lana bete beharko duten lau udalburuak. Miren Tarragona, Ander Barros, Itsaso Rodriguez eta Iñaki Larrañaga ditugu datozen egunetan mendekoste jaietako ekitaldi guztiak zainduko dituzten agintariak.

Laurek ezaugarri batzuk dituzte elkarrekin: bosgarren mailako ikasleak dira, zozketan aukeratuak izan dira, eta, lezoarrak izateaz gainera, guztiak oso urduri daudela aitortu dute. «Hala ere, gure agintaldia zorroztasun osoz beteko dugu», esan diote laurek EGUNKARIARI, irribarretsu.

Mirenek, Itsasok eta Anderrek alkatea izateko berria harrituta baina pozez jaso zutela diote, baina Iñakik, berriz, zalantzak izan zituela esan du: «Hasieran ez nuen alkatea izan nahi, balkoian jende guztiaren aurrean egoteak lotsa handia ematen baitzidan, baina orain ordua iristeko irrikan nago».

Hitzordua iristeko gero eta gutxiago falta da. Herriko Gurutze Santuaren plaza gazte eta hurrez gainezka ikusteko parada izango dugu, guztiok lau alkate txikiak udaletxeko balkoian noiz agertuko diren



Hiru alkate, Ander Barros, Miren Tarragona eta Iñaki Larrañaga, udaletxeko arkupeetan.

zain, beren mezuarekin festa pitz dadin.

Festak berezko kolorea eta umorea izan dezan, alkate txikiak jaien alaitasuna islatzen duten blusak jantzita agertuko dira mendekostei ongi-etorri aemateko, eta, era berean, pla-

AGINTALDIA

Lau alkateek «zorroztasun osoz» beteko dute beren agintaldia

zara biltzen den orori blusarekin agertzeko eskatuko diete. Festak eztanda egin ostean, Murixka Dantza Taldeko dantzariak ohorezko agurra dantzatzeko diete udalburu berriei eta lezoar guztiei. Horren ostean, blusen koloreak karriketa-

Aupa lezoarra!

Hauxe da mendekosteetako alkateak, Miren Tarragonak, Ander Barrosek, Itsaso Rodriguezek eta Iñaki Larrañagak, gaur arratsaldean irakurriko duten pregoia.

Gu Miren, Ander, Itsaso eta Iñaki gara. Mendekoste jai hauetan herriko alkate eta alkatesa txikiak garenez, jaietia hasiera emateko prest gaude.

Gure herriko jaietan ondo pasatzea nahi dugu, eta horretarako denok ditugun aukerak aprobetxatu behar ditugu, adin guztietako pertsonentzat: haur, gazte eta helduentzat, ekitaldiak prestaturik baitaude: buruhandiak, erraldoiak, jolasak, kontzertuak, sagardo eguna...

Guk uste dugu ekitaldi hauetan parte hartuz ez dela inor aspertuko.

Bukatzeke, or doakizue gure mezua: Orain eta beti Lezon euskaraz!

Gora Mendekoste jaiak!

Gora Lezo eta lezoarrak!

Gora Euskal Herria!

tik barrena ikusteko aukera izango da; izan ere, erraldoiekin batera buruhandiak irtingo baitira. Haiekin lasterketak, irribarreak eta urduritasuna nahastuko dituen desfile bizia egingo dute etxeko txikiak.

Pregoiko hitzek bi xede garbi dituzte: alde batetik, festez gozatzea, eta, bestetik, eukararen erabilera bultzatzea, bai festetan, baita urte osoan ere.

Alkateak bi ikastetxetako ikasleak izateak bi eskolen arteko harremanak sendotzeko eta aurrerantzean ere ekin-tza bateratuak antolatzen jarraitzeko balio izan du. Eta, era berean, haurren ametsak egia bihurtu dituzte.



Ogi eta boiloetan espezialitatea

Zorionak lezotar guztiei

Jaizkibel hirib. 23 LEZO

Urune pol. 110-23 lokala C

Tel. 943.51.50.75 LEZO

FAMIPAN
POLIGONO DE LEZO

HAURTXO

HAUR ESKOLA LEZO

AUPA LEZO!!



POLENTZARRENE, Z/G - Tel.: 943 52 73 42